

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4119

EBAZPENA, 2022ko abuztuaren 22koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez argitaratzen baitira 2022. urtean publikoak ez diren artxiboak antolatzeko, digitalizatzeko eta zabaltzeko jardueretarako dirulaguntzen deialdian emandako eta ukatutako dirulaguntzak.

2022ko ekainaren 17an argitaratu zen EHAAn Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko ekainaren 8ko Agindua, publikoak ez diren artxiboak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Agindu horren 14. artikulua dioenez, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren ebazpen-proposamena ikusita, Kulturako sailburuordeak ebatziko du prozedura, eta emandako ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradun gertatzen direnei banakako jakinarazpena egingo ez zaienik. Hortaz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea atxikitako eranskinetan Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2022ko ekainaren 8ko Aginduaren babesean emandako dirulaguntza guztiak eta haien onuradunak (I. eranskina), eta, halaber, ukatutako eskaerak (II. eranskina).

Bigarrena.– Agindua ematea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin, jendeak horren berri izan dezan.

Interesdunek ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dezakete Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren aurrean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 22a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

2022ko irailaren 23a, ostirala

I. ERANSKINA
ONURADUNEN ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

Onuraduna	Aurkeztutako programa	Zenbatekoa (euro)
Aranzadi Zientzi Elkartea	Plan de difusión de fondos digitales, fase 3	4.380,00*
Justo de la Cueva Dokumentu eta Artxibo gunea	Organizar, y describir: Donación del archivo físico al LBF. Objetivos del plan general: OB2.2, OB2.3, OB5	6.192,00*
Asociacion de Amigos del Museo del Hierro de Legazpi «Burdinola»	Legazpiko Plazaola baserriko Artxibo-funtsa katalogatu eta digitalizatzea	3.311,00
Bellota Herramienta, S.L.	Catalogación del archivo histórico de la empresa «Bellota herramientas». Legazpi	10.000,00
Eibarko Klub Deportiboa	Artxibo Sistema sortzeko programaren bigarren fasea	5.400,00
Euskal Herriko Txistularien Elkartea	Artxibo funtsa antolatu, katalogatu, digitalizatu eta zabaltzea	5.850,00*
Fundacion Educacion Marianista Domingo Lázaro	Organización y digitalización del Archivo del Colegio «Aldapeta María» Ikastetxea. (Marianistas)	11.950,00
Fundación Indalecio Prieto	Descripción y digitalización del fondo de archivo de Concha Prieto (4ª fase)	10.097,00
Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa	Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren Artxibo Historikoaren Antolaketa eta Digitalizazio Prozesuari jarraipena eman	4.900,00*
Izarzugaza Lizarraga, Iñaki	Digitalización y transcripción de entrevistas de La Encartada (fase 3)	900,00
Real Automóvil Club Vasco Navarro	Digitalización del archivo del RACVN y bases de datos	4.690,00
Loiolako Santutegia	Digitalización de cartas del fondo de Jesuitas, siglo XVIII-XIX	16.800,00
Loiolako Santutegia	Clasificación, ordenación y descripción del fondo Loiola. 5ª fase	15.980,00
Serrats Urrecha, Gonzalo M.ª	Archivo de la familia Urrecha-Arriola. Programa de descripción (conclusión)	18.200,00
Serrats Urrecha, Gonzalo M.ª	Archivo de la familia Arriola-Urrecha Programa de digitalización (final)	16.900,00
Tejada Manso de Zuñiga, María Victoria	Catalogación del archivo Bengolea – Eguiguren y Villarreal de Berriz	18.200,00
Tejada Manso de Zuñiga, María Victoria	Digitalización del archivo Bengolea – Eguiguren y Villarreal de Berriz	16.250,00
Gutzizko zenbatekoa		170.000,00

(*) Proiektu horietan dokumentazioaren zati handi bat dirulaguntzaren xedeetatik kanpo dago, gariakidea delako (2.2 art.). Eskatzaileak emandako datuen arabera, gutxi gorabeherako zatia lagunduko da diruz.

80 puntu: %70 75 puntu: %65 70 puntu: %60 65 puntu: %50 50 puntu: %40

2022ko irailaren 23a, ostirala

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKAEREN ZERRENDIA

Eskatzailea	Aurkeztutako programa	Ukatzeko arazoia
Euskal Herriko Antzerkizale Elkartea- EHAZE	Ehaze-jazotakoa jaso	Eskatzaileak ez ditu betetzen deialdi-aginduaren 2.2. artikuluan finkaturiko onarpen-baldintzak.
Rosa M.ª Abal Martinez	Gaitzerdi teatro. Digitalización de archivo privado	Eskatzaileak ez ditu betetzen deialdi-aginduaren 2.2. artikuluan finkaturiko onarpen-baldintzak.
Ordiziako Udala	Miren Etxezarretaren funtsa artxibatu, digitalizatu eta hedatu	Eskatzaileak ez ditu betetzen deialdi-aginduaren 2.1. artikuluan finkaturiko onarpen-baldintzak.